

DIRU-ITURRIAK




Gure enpresa martxan jartzeko beharrezkoa izango da **bazkideok ekarpen** bat egitea, izan ere, botilak arropa bihurtzeko eta ondorioz, gure produktuak sortu ahal izateko, makina batzuk lortu behar ditugu. Horregatik, bazkide bakoitzak 3000€-ko diru-kopurua jarriko du eta guztira 12000€ eskuratuko ditugu.



Bestalde, **diru-laguntzak** ere lortzen saiatuko gara. Horretarako, [Tolosaldea Garatzen](#) agentziara joko dugu lehenik, bertako enpresa berri bat garenez, diru laguntzaren bat eman diezaguten. Gainera, [Eusko Jaurlaritzak](#) gazte ekintzaileak saritzen duten diru-laguntzak ditu, eta horiek baliatuz, 5000 € inguru lortuko genituzke. Horrekin nahikoa ez balitz, Espainiako gobernuak emakume ekintzaileei 25000€-arteko mikrokredituak lortzeko aukera eskaintzen die.



Hala ere, Paranga enpresak diru-sarrerak sortzeko modu nagusia **aktiboen salmenta** izango da. Gure aktiboak diseinu eksklusiboak nahi dituztenentzako arropak eta udaletxeei zuzendutako botila biltzeko makinak izango dira. Salmenta hauen bidez lortutako diru-sarrerak ordainketa bakarrekoak dira. Bai arropek eta baita makinek ere, prezio finkoa izango dute, zerrendako prezioa hain zuzen ere. Gutxi gorabehera aktiboen salmentak gure irabazien %85 suposatuko du, behin enpresa martxan jarritakoan.



Azkenik, beste diru-iturri garrantzitsu bat **publizitatea** izango da. Beste enpresei publikitatea egiteko, kalean jarrita egongo diren gure botila bilketarako makinak eta gure web orria erabiliko ditugu. Makinek plastikozko botilekin erlazio zuzena dutenez, [Insalus](#) enpresarekin kolaboratuko dugu publikitatea egiteko garaian, izan ere, jendeak makinan botilak botatzea enpresa honekin erlazionatzea onuragarria da haientzat. Bestalde, [Ecoalf](#) enpresarekin kolaboratuko dugu diseinuren bat ateratzeko. Era horretan, behin enpresa martxan dagoela, publikitatea gure irabazien %15 izango da.

INSALUS



Hilabete batean gutxi gorabehera ekoitzi eta salduko ditugun arropak eta haien irabaziak:

ARROPA MOTA	PREZIOA	EKOIZPENA	DIRU SARRERA
Jertse txanoduna	40€	60	2400€
Txano gabeko jertsea	35€	50	1750€
Kamiseta basikoa	20€	50	1000€
Poloa	25€	20	500€
Kamiseta tirantenteduna	15€	25	375€
Guztira			6025€

Horretaz gain, kontuan izan behar da, produktuaren bidalketa egin behar bada, kantitate extra bat ordaindu beharko dela, distantziaren arabera guk entregatzekotan edo postako prezioen arabera bestela.

Lehen urtean gutxi gorabehera salduko ditugun botilak biltzeko makina iraunkorrak:

	PREZIOA	EKOIZPENA	SARRERA
Botilak biltzeko makina	600€	75	45000€